

MIRANDE

IRENE ELORTZA GERENO

Gaur estreinatuko den *Mirande: film bat egiteko zirriborroa* dokumentalarekin itxiko da aurtengo Zinemira saila. Josu Martinez zuzendariak bi film ekarri ditu aurtun Donostiara, *Bizkarsoro* fikziozko film luzea eta *Miranderi buruzko lana*. Kontraesanez betetako intelektual bat aukeratu du Martinezek oinarrian ikerketa bat duen lan hau sortzeko. Izan ere, Jon Mirande egile eta pentsalaria euskal literatura modernoaren ezinbesteko figuratzat hartzen den neurri berean pizten ditu eztabaida sutsuak, bere testuetan jorratzen zituen gaiengatik (pederastia, erotismoa, nazismoa, eta abar).

Institutu garaian irakurritako ipuin batek esnatu zion *Miranderi buruz film bat egiteko gogo* zuzendariari. "Zinema beltzeko errelatoak ziruditen ipuinak eta euskaraz horrelakoak gutxitan neuzkan irakurriak, oso zinematografikoa iruditu zitzaidan", dio Martinezek, "eta beti pentsatu dut *Mirande pertsonaia* puska bat zela eta film bat bazuela". Oso berea duen estiloan, zuzendari bizkaitarrak ikerketa aukeratu du dokumentalaren ardatza finkatzeko. "Denek bezala, interesatzen zaizkidan gaiei buruzko filmak egiten ditut eta saiutzen naiz munduan gai horri buruz gehien dakien pertsona bilakatzen", adierazi du zinemagileak. Hortaz, *Miranderen lan osoa* irakurri zuen, bere gutunak

# Jon Mirande oroitzuz, ikerketa baten arrastoa



bilatu eta bestelako material ezezaguna aurkitu zuen. Baina batik bat, *Miranderi buruz esaten zena* interesatzen zitzaien Martinezi. "Jon Miranderen inguruan gauza asko esan dira eta hain gauza larriak esan direnez, hasieratik burura zetorkidana hainbesteko epaiketa egiten zaizkionari

hitza eman behar zitzaiola zen". Mirande bere hitzetan bizi dela izan da zuzendariaren apustua: "Miranderekin elkarrizketa bat izatea nahi nuen eta filmaren ardatza berak esandakoa izatea, bai literaturari buruz, bai bere pentsaerari buruz, eta baita bere bitzitari buruz ere".

Baina, nola eman hitza orain 50 urte zendu zen egileari? Peio Berterretxe punta-puntako aktorea aukeratu du Martinezek Mirande gorputzeko. "Fizikia ez den eta baden dispositibo bat muntatzen

saiatu naiz, errealitateari oso itsatsia eta Bertolt Brechtek aipatzen zuen distantziazioaren bidea hartzen duena egia bilatzeko. Aktorea medium bat da nolabait, *Miranderen* ahotsa entzuteko. Bere gorputza utzi egiten dio baina ez du *Mirande* ordezkatzeko. Formalki arriskatu den dispositibo delako aitortzen du egileak, baina emaitzarekin kontentua dago.

*Miranderen* hitzez gain, haren inguruko lekukotzak ere biltzen dira dokumentalean. Joseba Sarrionandia edo Itxaro Borda bezalako idazleen testigantzak eta euren artean sortzen zen elkarrizketa interesatzen zitzaien Martinezi. "Argi nuen *Mirandek* izan behar zuela zentroa eta *Miranderi* eman behar zitzaiola hitza; baina haren inguruan halako koro bat osatuz, beharbada ikusleari gehiago pentsatzen laguntzen zaio", esan du zinemagileak. Eta gehitu du: "Filmaren asmoa ez da erantzunak ematea, ez bada pentsatzeko gako batzuk ematea eta bidean galdera batzuk uztea bakoitzak bere ondorioak atera ditzan".

## MAR DE FRADES

ALBARIÑO ATLÁNTICO

VIVE EN AZUL

WINE MODERATION  
ELIGE | COMPARTE | CUIDA  
"El vino solo se disfruta con moderación"

Existe un color que inspira la sensación de libertad al más puro estilo atlántico

**Donostia Zinemaldia**  
**Festival de San Sebastián**  
Patrocinador